

► Bideo batek euskarazko 22 ume jolasen berri emango du Pirritx eta Porrotxen abentura berriaren aitzakiaz

► Tapia eta Leturia, Andoni Egaña, Martin Berasategi, Mieltxo Saralegi eta beste hainbatek hartu dute parte

«Zatoz jolastera» Hik Hasiren eskutik, kultur eta kirol arloko pertsona oso ezagunekin

Martin ANSO | LASARTE-ORIA

Azken urteotan ume jolasetan ere euskararen erabilpena sustatzeko egin duen lana biribiltzeko, Hik Hasi talde pedagogikoak bukatu berri du «Zatoz jolaste-

ra» bideoaren grabazioa. Manolo Gil eta Enrike Urdanozek zuzendu dute Euskal Herriko ikus-entzunezkoen panoraman arrunta ez den lan hau. Jolasak Pirritx eta Porrotx pailazoaren abentura berri baten

baitan txertatzen dira eta berauetan Saralegi, Txan magoa, Erramun Martikorena, Tapia eta Leturia, Andoni Egaña eta kultur zein kirol munduko beste hainbat pertsona ezagunek hartu dute parte.

Herriko plazan umeak jolasean aritu dira harik eta Serapiok baloia kendu dien arte. Serapiok sekulako amorrua die ume jolasei, berak ez zuelako txikitari jolas egiteko aukerarik izan. Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunak plazatik pasatu dira eta, hango neska-mutilak kopetifun ikusita, haiekin batera amonaren baserrira joateko proposatu diete. Eta baserrira abiatu dira denak. Bidean eta baserrian bertan hogeita bi jolasetan parte hartzeko aukera izango dute, berriz kantua lagun eta Serapio, berriz, etsai. Tarteka, gainera, umeek kultur eta kirol munduko oso pertsona ezagunekin egingo dute topo, hala nola, Tapia eta Leturia, Martin Berasategi, Txan magoa, Erramun Martikorena, Asier eta Aimar Olaizola, Josune Bereziartu, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Sakana sokatira taldea eta Mieltxo Saralegirekin.

Hau da Manolo Gil eta Enrike Urdanoz bidegile ezagunek bukatu berri duten grabazioaren muina. Honekin biribildu nahi du Hik Hasi taldeak ume jolasetan ere euskararen erabilera sustatzeko orain dela lau bat urte hasitako lana.

«Gure taldea ezaguna da, batez ere Euskal Herriko ikastetxe guztietara hilean behin aldizkaria bidaltzen dugulako -adierazi zioten GARARI Jose Mari Auzmendi eta Arantxa Urbe Hik Hasi partaideek-, baina beste material pedagogikoak ere lantzen ditugu, horien artean azken urteotan CD moduan argitaratu ditugun eta oraingo bideoaren oinarri diren haur jolasen bi abesti bilduma».

Hutsunoak ume jolasetan

Hik Hasikoek ume jolasen inguruko hutsune batzuk nabaritu zituzten. «Ikasleek euskaraz ikasi bai, baina jolasak, berriz, erdaraz egiteko joera handia dute, beste arrazoi askoren artean jolas horiek dituzten kantu laguntzaileak erdarazkoak direlako -esan zuen Auzmendik-. Hutsune horiek bete nahian, euskarazko kantuekin lotuta dauden ume jolasen bilketa egin genuen urtebetez. Baziren euskaraz ez zeduten jolas batzuk, adibidez, txalotakoak edo gomatakoak. Eta horiek propio sortu behar izan zituzten irakasle batzuek, musika eta guzti».

Lan horren ondorioz, eta bertiere umei (eta gurasoei) jolasak euskaraz egiteko ereduak eskaintzeko helburuarekin, Hik Hasi kasete edo CD moduan bi abesti bilduma argitaratu zituen. Guztira, 46 jolas, tradizionalak eta berriak barne.

«Laster ikusi genuen, ordea, hori ez zela nahiko, jolasak ezin zirelako entzunez bakarrik ikasi, ikasteko ikusi ere egin behar zi-



relako. Horregatik, iaz lehenengo aldiz, bi lagun ibili ziren ikastoletan irakasleei jolasak erakusten. Eta aurtan ere halaxe ibiltzekoak dira. Baina pentsatu genuen ahalegin hori ere laster motz geratuko dela euskarri sendogorik bilatu ezean. Eta horrela sortu zen bideoa egiteko ideia», esan zuen Urbe.

Idea pixkanaka-pixkanaka haziz joan da, Euskal Herriko ikus-entzunezkoen panoraman batere arrunta ez den produktua sortu arte. «Jolasak era dokumentalean aurkezteko bidea lehenengo momentutik baztertu eta pailazoaren abentura berri batean txertatzeko aukerari heldu diogu, horrela ikasle, irakasle, eta gurasoentzat erakargarriagoak izango direlakoan», esan zuen Arantxa Urbe.

Gidoia pailazoaren taldeari berriz zor zaio eta horren zerbitzura jarri da pertsona ezagunen parte-hartzea ere. Harri jolas batean, adibidez, Mieltxo Saralegi agertzen da; arrautzaren behatzen jokoan, berriz, Martin Berasategi; pilota jokoetan, Asier eta Aimar Olaizola; hitz jokoetan, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio; sokan, Sakana sokatira taldeko mundu txapeldunak. «Ez dago esan beharrik pertsona hauek guztiak musu truk aritu direla. Gehienek bidai gasturik ere ez dute kobratu nahi izan», nabarmentu zuen Auzmendik.

Badira ezagunak ez izan arren bideoan protagonismo ederra dutenak ere, esaterako, Zurriolako ikastolako haurrak. Goloka taldekoen ostruka bat, metro eta erdiko iguana bizi bat, Tapia eta Leturiaren atzetik kalejiran joan nahi ez zuen astoa. Den-denek hartu dute parte hamar egun iraun duen «Zatoz jolastera» bideoaren grabazioan. Zizurkil eta Aizarna herrietan irudi batzuk grabatu badira ere, gehien-gehienak Lasarte-Oria eta Hernanin hartutakoak dira, zehazkiago, Lasarteko Zabaleta eta Hernaniko Jauregi auzoetan, Tiburtzio eta Liberatak Hik Hasikoei eskuzabal utzi dieten Zelai Gain baserrian eta inguruetan. Txillida-Leku gertu dagoenez gero, azken asteotan inguru horretan egon den poliziaren presentziak ere izan du eraginik. «Helikopteroa behin eta berriro pasatzen ari zenez, ezin zen Tapia eta Leturiaren kalejira behar bezala grabatu». Baina, horrelakoak alde batera utzita, Hik Hasikoak pozik daude. «Eguraldia ere lagun izan dugu eta ez gara kexatuko, are gutxiago emaitzarekin guztiz ilusionatuta gaudela kontuan izanik», aitortu zuten.

Hik Hasikoek Durangoko Azokan jarriko dute salgai «Zatoz jolastera», ordubeteko bideo horrek proposatzen dituen jolasak aurki plazetan entzungo diren esperantzarekin.

Grabazioaren une batzuk. Pertsona ezagunen artean, Porrotx, Pirritx, Tapia, Leturia, Olaizolarrak eta Josune Bereziartu.

HIK HASI